



2026SECG0003
3.bilera: OHIKOA 2026/04/29

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 03/2026
EGUNA: 2026/04/29
HASIERA ORDUA: 17:00
AMAIERA ORDUA: 17:45
TOKIA: Debako Udaletxeko Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Lehendakaria: Alazne Txurruka Allika, alkatea.
Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

Idazkaria: Iñaki Galdos Landa

EZ BERTARATUAK:

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Aurkeztu zen 2026ko martxoaren 26an eginiko bileraren akta Tokiko Gobernu Batzarrak, onar zezan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen 2026ko martxoaren 26an eginiko bileraren akta.

2. Apirileko Udalbatzarraren bileran jorratuko diren gaien azterketa.

Alkateak azaldu zituen 2026ko apirileko Osoko Bilkuraren gai zerrendako gaien buruzko informazio orokorra emanez.

2026ko martxoaren 24tik, 2026ko apirilaren 21era arte onartutako Alkatetzaren dekretuei buruz, azaldu zuen ez zegoela ezer berezirik, eta interesgarrienak aipatu zituen.



2026SECG0003
3.bilera: OHIKOA 2026/04/29

Hurrengo gaia, Andima Egaña Egaña jaunak EAJ/PNV udal taldeko zinegotzi kargua hartzearena zen.

Hauteskunde Batzorde Zentraletik bere kredentziala bidali zutela, eta beharrezkoak ziren adierazpenak eginda zituenez, zinegotzi kargua hartuko zuela.

Onartzeko proposatzen zen produktibitate osagarriaren inguruko azalpenak eman ziren. Araudiak ezartzen dituen mugen barruan, 55.000 €ko produktibitate osagarri bat ezarri nahi da, baita osagarri horren banaketa irizpideak ere.

Proposamena onartuz gero, Idazkaritza eta Kontuhartzaitza sailtako gaur egungo egoera ikusita, eta bertako langileek egiten ari diren lan bereziak kontutan izanik, produktibitate osagarri hori ezarriko litzaieke, sailtako egoera normaltasunera itzuli bitartean.

Onartzeko proposatzen zen Debako herrian etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko oinarriak direla eta, aipatu zen, laguntza jaso ahal izateko, bete beharreko baldintzak malgutu zirela.

Horrela, adinaren topea kendu zen, onuradun izateko diru sarreraren kopurua handitu egin zen, eta erroldako antzintasuna, bi urtetatik, bakarrera jaitsi zen.

Azken puntu bezala, maiatzaren 17ko LGTBI+ fobiaren aurkako Nazioarteko eguneko adierazpen instituzionala onartzea proposatuko zen.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

3. Eskari eta galderak.

Ez zen egon eskaririk ezta galderarik ere.

Horrenbestez, beste aztergairik ez zegoenez, 17:45ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea

Iñaki Galdos Landa
Idazkaria